

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 298/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, 2008ko martxoaren 11koa, genetikoki aldatutako elikagai eta pentsuei buruzko 1829/2003 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
«REGLAMENTO (CE) N° 298/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, sobre alimentos y piensos modificados genéticamente, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 97/64, 2008/4/9koa*)

2008/298/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/64, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 298/2008 (EE) ERREGELAMENDUA

2008ko martxoaren 11koa,

genetikoki aldatutako elikagai eta pentsuei buruzko 1829/2003 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Tratata, eta bereziki, haren 37, 95 eta 152. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatia aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote aldez aurretik Eskualdeetako Lantaldeari,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1829/2003 (EE) Erregelamendua xedatutakoaren arabera ⁽³⁾, neurri jakin batzuk Kontseiluaren 1999/468/CE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleituriko betearazte-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenaren arabera onartu behar dira ⁽⁴⁾.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiaren bitartez aldatu zen, Tratatuaren 251. artikulua arabera xedatutako prozeduraren bitartez onartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko, edota elementu horietako batzuk ezabatzeko nahiz funtsezkoak ez diren elementu berriak sartzeko neurri orokorrak onartzeko kontrol-dun arautze-prozedura onartu baitzuen.

(3) Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006/512/EE Erabakiari buruzko Aitorpenaren arabera ⁽⁵⁾, kontrol-dun arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera onartutako egintzetan, dagoeneko indarrean daudenetan, kontrol-dun arautze-prozedura aplikagarria izateko, azken horiek aplikagarriak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Komenigarria da Batzordeari eskumenak esleitzea, elikagai edo pentsu mota bat 1829/2003 (EE) Erregelamendua aplikazio-eremuan sartzeko, genetiki aldatutako organismoek osatutako produktuak badira edo horrelako organismoen trazak dituzten materialen kasuan, nahiz horrelako organismoetan oinarritutako materialak badira, bai nahi gabe edo nahita bada ere, etiketak jartzeko gutxieneko kopurua jaisteko; genetiki aldatutako materiala nahi gabe edo beste irtenbiderik ez dagoelako ageri bada, eta material horiek elikagai eta pentsuen esparruan arriskuen ebaluazioan emaitza ona izan badute, eragile eta kolektibitatei eskatzen zaien informazioari eta etiketatzeari buruzko neurriak hartzeko. Neurri horiek orokorrak direnez, eta 1829/2003 (EE) Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta funtsezkoak ez diren elementu berriak ere gehitzen dituztenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartu behar dira.

(5) Beraz, bidezkoa da 1829/2003 (EE) Erregelamendua aldatzea.

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 29koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 268 EO, 2003.10.18koa, 1. or. Batzordearen 1981/2006 (EE) Erregelamendua (L 368 EO, 2006.12.23koa, 99. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(4) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa 11.or.) aldatutako Erabakia.

(5) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

2008/298/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/64, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

1829/2003 (EE) Erregelamendua aldatu egingo da, eta horrela idatzita geratuko da:

1) 3. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. «2. Beharrezkoak direnean, Araudi honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak, hura osatzen dutenak, eta elikagai-mota bat atal honetako aplikazio-eremuan sartzen den zehazten dutenak, 35. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-dun araudi-prozeduraren arabera onartu beharko dira.»

2) 12. artikuluko 4. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«4. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko neurriak, eta muga egoki baxuagoak ezartzen dituztenak, bereziki GAO bat duten edo GAO batean oinarritutako elikagaien kasuan, edo zientzia eta teknologia esparruan egindako aurrerapenak kontuan hartzen dituztenak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.»

3) 14. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«14. artikulua

Betearazte-neurriak

1. Batzordeak neurri hauek hartu ahal izango ditu:

— eragileek erakunde eskudunei 12. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa behar bezala betetzen dutela frogatzeko beharrezko neurriak,

— eragileek 13. artikuluan aipatutako etiketatze-baldintzak betetzeko beharrezko neurriak,

— elikagaien horniduraz arduratzen diren kolektibitateek azken kontsumitzaileari eman beharreko informazioari buruzko berariazko arauak. Kolektibitateen berariazko egoera kontuan hartzeko, arau horiek 13. artikuluko 1. paragrafoko e) idatz-zatian xedatutako baldintzen egokitzapena aurreikusi ahal izango dute.

Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzekoak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

2. Gainera, 13. artikulua aplikazio bateratua errazteko garapen-arauak 35. artikuluko 2. atalean xedatutako arautze-prozeduraren arabera onartu ahal izango dira.»

4) 15. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. Beharrezkoak direnean, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak, hura osatzen dutenak, eta elikagai-mota bat atal honetako aplikazio-eremuan sartzen den zehazten dutenak, 35. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartu beharko dira.»

5) 24. artikuluko 4. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«4. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko neurriak, eta muga egoki baxuagoak ezartzen dituztenak, bereziki GAO bat duten edo GAO batean oinarritutako elikagaien kasuan, edo zientzia eta teknologia

2008/298/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/64, 2008/4/9koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

esparruan egindako aurrerapenak kontuan hartzen dituztenak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.».

6) 26. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«26. artikulua

Betearazte-neurriak

1. Batzordeak neurri hauek hartu ahal izango ditu:

— eragileek erakunde eskudunei 24. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa behar bezala betetzen dutela frogatzeko beharrezko neurriak,

— eragileek 25. artikuluan aipatutako etiketatze-baldintzak betetzeko beharrezko neurriak.

Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzekoak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

2. Gainera, 25. artikulua aplikazio bateratua errazteko garapen-arauak 35. artikuluko 2. atalean xedatutako arautze-prozeduraren arabera onartu ahal izango dira.».

7) 32. artikuluko bosgarren lerrokadaren ordez honako testu hau jarriko da:

«Artikulu honen garapen-arauak eta eranskinarenak 35. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.

Neurri horiek, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak eta eranskina egokitzeak, 35. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.».

8) 35. artikuluko 3. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. tik 4. atalera bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa betez.».

9) 47. artikuluko 3. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«3. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko neurriak, hain zuzen ere 1. paragrafoan xedatutako mugak apaltzekoak, bereziki azken kontsumitzaileari zuzenean saltzen zaizkion GAOen kasuan, 35. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamen du hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrezkoak eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon egina, 2008ko martxoaren 11an.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea

2008/298/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/64, 2008/4/9koa)